

artikulu nabarmenak
artículos destacados

2012



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

otsaila



Understanding obesity risks and consequences among youth and adolescents.

Obesitateak gazteei eta nerabeei dakartzkien arriskuei buruzko ale monografikoa.

Edukiak: Pisuaren pertzepzioa, substantzien kontsumoa eta elikadura-jokaera desorekatuak; Substantzien kontsumoa gazteen artean eta gorputz-osaera; Pisuaren oinarritutako biktimizazioa nerabeen artean, eskolan; Sexu-jokaera arriskugarriak; Arrazaren eta etniaren ziozko aldeak obesitateari dagokionez, helduarako trantsizioan; Gehiegizko pisua duten nerabe-aurrekoengan, gorputzkerarengatik kezken eta pisuaren arteko harreman psikosozialak; Gehiegizko pisua eta obesitatea neska nerabeengan; Nerabe-aurrekoek eta gurasoek duten eraginkortasuna pisua kontrolatzeko familian-tratamenduan dietari aurre egiteko; eta Haurren eta nerabeen obesitatea.

Journal of Youth and Adolescence, 41. lib., 1. zk., 2012 urtarila, 104 or.



Escuelas de formación ante las nuevas cualificaciones profesionales.

Lanbide Heziketan egon berri diren aldaketekin lotutako dossierra. Edukiak: kualifikazioen eta lanbide-heziketaren lege organikoa; *Didaniaren* jarrera lanbide-kualifikazioei dagokienez; beste erronka bat astialdiko eskolentzat; Eskolei kurrikuluma aldatzen duten bitartean lagun egiten; eta Elkarrizketa Virginia Grosekin (Union française des centres de vacances et loisirs erakundeko Ekoizpen eta Komunikazio Ataleko arduraduna).

Monitor educador, 148. zk, 2011 azaroa-abendua, or. 10-21



Galais, Carol. ¿Cada vez más apáticos? El desinterés político juvenil en España en perspectiva comparada.

Espainiako gazteen apatia politikoaren maila, Europakoenarekin alderatuta, larrizko modukoa dela dioen baieztapena aztertzen da artikulu honetan, bai eta Espainiako gazteek politikarekiko duten interesak behera egin duen azkenaldian. Hori dela-eta, Espainiako eta Europako gazteak gainerako biztanleekin alderatzen dira, bai eta, aurreko garai batzuetan gazte izandakoekin ere. Azkenik, gazteen arian-ariango eta balizko despolitizazioa konprobatu egiten da, aldagai ugari aztertuta. Analisi horren ondorioa da gaur egungo gazteek politikarekiko duten interes-maila 1980ko hamarkadakoaren azpitik dagoela, baina bakarrik horien azpitik. Aipatu beharra dago 1980ko hamarkada salbuespena izan zela, gainera.

Revista Internacional de Sociología, 70. lib., 1. zk., 2012 urtarrila-apirila, or. 107-127